



OÑATI
dabilen herria

Gida laburra, Oñatiko herritarren parte-hartzea,
lankidetzaren publiko-soziala eta irekiera instituzionala
arautzeko Udal Ordenantzari buruzkoa



Udal ordenantza eta
gida deskargagarri
hemen



Puedes descargar la
infografía aquí (ES).



OÑATI
dabilen herria

Izan parte, hartu hitza.

Gida laburra, Oñatiko herritarren parte-hartzea,
lankidetzaren publiko-soziala eta irekiera instituzionala
arautzeko Udal Ordenantzari buruzkoa

oñati.eus

Udalaren ateak, zabalik

Informazioa zure eskura

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

Herritar bezala, informazio
publikoa jasotzeko eskubidea
duzu.

Publizitate aktiboa

Udalak, aldian aldian,
herritarrentzat interesgarria
den informazioa zabaltzeko
betebeharra du.

Gardentasun ataria



<https://oñati.gipuzkoa-irekia.eus/eu/>

Harremanetan jartzeko bideak



AURREZ-AURRE

HAZ, arreta integrala
eskaintzeko erreferentziarako
bulegoa.



INTERNETEKO ATARIA

www.oñati.eus



EGOITZA ELEKTRONIKOA

Haren bidez, Udalak herritarrei
informazio, zerbitzu eta izapide
elektronikoetara sartzeko bidea
ematen die.



TELEFONOA

943 78 04 11
(010 Oñatitik deituz gero)

Udal komunikabideak

Atari digitala Oñatiarren Berbia



oñati.eus/eu/berbia

Oñati Irratia



oñati.eus/eu/berbia/irratia

Kontzejupetik aldizkaria



[oñati.eus/eu/berbia/
kontzejupetik-aldizkaria](http://oñati.eus/eu/berbia/kontzejupetik-aldizkaria)

Elkarteak saretu eta lankidetza sustatu

Elkartegintza, boluntariotza eta partaidetza soziopolitikoaren beste modu batzuk bultzatzeko, Udalak estrategia eta baliabideak ditu.

Elkarteen sarea indartzeko



BALIABIDEAK

- Laguntzak
- Dirulaguntzak
- Hitzarmenak
- Bestelako lankidetza moduak
- Aholkularitza zerbitzua talde kudeaketan eta parte-hartzean
- Prestakuntza eta formakuntza

Gizarte Zibila indartzeko



BALIABIDEAK

- Boluntariotza aitortu eta sustatzea
- Baliabideak eta ekipamenduak
- Informazioa eta prestakuntza

Udalak lankidetza publiko-sozialerako ekimenak eta formulak lehenesten ditu.

Lankidetza publiko soziala sustatu



ARLOAK

- Partaidetza
- Elikadura, ekonomia eta kontsumo alternatiboa
- Herritarren elkartasunerako jarduerak
- Osasun publikoa eta komunitarioa
- Kulturartekotasuna
- Kirola
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna
- Gizarte arriskuko egoerak prebenitzea eta gizarte- eta laguntza-ongizatea sustatzea
- Herri hezitzailea
- Hirigintza
- Hiri ingurumena
- Hizkuntza berdintasuna eta euskararen aldeko neurriak
- Kultura
- Balio demokratikoak
- Beste politika publiko batzuk



LANKIDETZARAKO BIDEAK

- Hitzarmenak
- Zerga-onurak edo -pizgarriak
- Ondasun higigarri edo higiezinak
- Dirulaguntzak
- Parte-hartze ekonomikoa

Nola hartu parte

Herritarren partaidetzarako guneak

Topaketarako eta elkarrizketarako espazio egonkor eta iraunkorrak dira, eta bertan gaiak arlo eta lurraldeko ikuspegiarekin lantzen dira. Arautuak edo arautu gabeak izan daitezke eta iraupen mugatua edo mugagabea izaten dute. Hainbat forma har ditzakete: kontseiluak, behatokiak, mahaiak, foroak...

Partaidetza prozesuak

Epe jakin bat duten prozesuak dira. Herritarren arteko edo herritarren eta udal arduradunen arteko elkarrizketak sustatzeko dira, baita ideiak, ikuspegiak eta jarrerak kontrastatzeko ere.

Prozesuari ekin aurretik, prozesua eragin duten arrazoiak, lortu nahi diren helburuak eta Udalak emaitzekin duen konpromiso maila zehaztuko dira.



ESKATZEKO ESKUBIDEA

Oñatiko Udalaren eskumeneko gaiei buruz eskaerak egin ditzakezu edo argibideak eskatu ahal izango dizkiozu Udal Gobernuari.



ENTZUNA IZATEKO ESKUBIDEA

Udal prozedura edo erabaki batek zuzenean eragiten badizu edo horretan legezko interesik baduzu, entzuna izateko eskubidea duzu entzunaldi publiko bidez.



KEXAK, ERREKLAMAZIOAK ETA IRADOKIZUNAK AURKEZTEKO ESKUBIDEA

Desadostasuna edo asegabetasuna adierazi, kalte-ordainak erreklamatu edota arloren bat hobetzeko proposamenak egin ditzakezu.



UDAL KONTSULTARAKO ESKUBIDEA

Garrantzia berezia duten eta interes orokorreko udalaren eskumeneko gaietan, Udalari eska diezaiokezu herritarren iritzia galdetu dezala bozketa sistemaren bidez.



BILTZEKO ESKUBIDEA

Denok erabil ditzakegu udal lokalak, ekipamenduak eta gune publikoak jendea biltzeko, betiere erabilgarri badaude.



OSOKO BILKURETAN HITZ EGITEKO ESKUBIDEA

Osoko Bilkurak publikoak dira. Aurrez, gai baten inguruan hitza hartzea eska dezakezu.

Edonola ere, galderen edo eskaeren txandan, publikoan dagoen edonork hitza hartu ahal izango du.



AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKORAKO ESKUBIDEA

Udal-ordenantza edo -araudi bat egin aurretik, horri buruzko informazioa jasotzeko eskubidea duzu, baita iritzia ematekoa ere.



BATZORDE INFORMATIBOETAN HITZ EGITEKO ESKUBIDEA

Udaleko informazio batzordeak ez dira publikoak. Hala ere, hitza eska dezakezu gai zehatz baten inguruan iritzia emateko edo txostenak jasotzeko.



HERRITARREN EKIMENERAKO ESKUBIDEA

Sinadura bilketa baten bidez, interes orokorrekoa eta udal eskumeneko gaia bada, udalari eska diezaiokezu:

1. Testu artikulatuak aurkeztea
2. Entzunaldi publiko bat abian jartzea
3. Herri kontsultak proposatzea
4. Partaidetza prozesu bat hasi edo partaidetza gune bat sortzea
5. Udal interes publikoko edozein jarduera

Eskubideak